

Auzoz auzo

Altza

Altza protagonista

Altzako Historia Mintegiko kideek, "Altza Hautsa Kenduz" bildumaren seigarren liburua prest dute. Bildumaren aurreko aleetan bezala, auzoari buruzko informazio zabala bildu da bertan.

Aipatu bildumaren seigarren liburuan hainbat gairen inguruko artikulak bildu dira: historia, literatura, etnografia, festak, ba-serriak, bitxikeriak eta abar. Artikuluak euskarazkoak zein gaztelerazkoak dira. Liburua osatzeko Historia Mintegiko kideek hainbat kolaboratzaile izan dituzte: Joan Mari Iri-goien idazle altzatarra, An-txon Agirre Sorondo

Aurkezpena hilaren 18an egingo da Larotxenen


eta Josu Tellabide etnologoak, Alaitz San Roman, Angel Calvo eta Iñigo Landa historialariak, Gazteluene Bertso Eskolako kazetaria... Ezin aipatu gabe utzi, gainera, Bordazar base-rriko Manuel Zapirain, joan den larunbatean hil zen auzotarra.

Liburuaren azala, bestalde, aurreko aleetan bezala, Joaquin Garridok egin du. Alde grafikoari dagokionez, berriz, argitalpena Casares kultur etxeko fototekako Intxaurrendoko altzatarren argazkiekin apaindu dute. Horrez gain, "Txokolarte" Altzako arte tailerreko kideek eginiko hainbat grabatu bildu dira.

Dagoeneko liburuaren bi aurkezpen iragarri dira. Lehendabizikoa, urriaren 18an egingo da, Larotxene kultur etxean. Hurrengo egunean, aurkezpena Altzan bertan egingo da, Casares kultur etxean. "Intxaurrendoko garai batean Altzako auzo bat izan zen, Buenabista eta Herrera bezala. Oraingoan, liburuaren aurkezpena Intxaurrendon egitea erabaki dugu", jakinarazi digu Iñigo Landa Altzako Historia Mintegiko kideak.

Liburua egiteko mintegiko kideek Casares kultur etxeko eta oro har Donostia Kulturako laguntza jaso dute. Ramon Etxezarreta zinegotziak idatzi du hitzaurrea.

Aurreko liburuetan bezala, Joaquin Garridok egin du azala.



ALTA KENDUZ

JATETXEA BORDA

Sorabilla auzoa z/g ANDOAIN • Tel.: (943) 59 28 60

- Ezkontzak, enpresa bazkariak, senitartekoen bilerak, agur-afariak... egin ahal izango dituzu.
- Diskoteka zabalik ostirala eta larunbata gauez.

CASA BARTOLO

Gure berezitasuna haragi eta arrainak parrilan

Fermin Calbeton kalea 38
Tel.: (943) 42 17 43
20003 DONOSTIA